

## No comment

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Idazlea

HOY ESCRIBE

Joan den asteko "Guardian Weekly" astekaria irakurri dut (1997-I-19; S. orr.). Eta bertan Jon Henley kazetariak argitara duen artikulu mamitsuaren berri emango dizuet; ia-ia iruzkinik batere gabe. Axularren hizkera neure eginez, izkribua bere buruz mintzo baita klarki.

Idazpurua hasteko: «*Estonia freezes out Russians*». Alegia, Estoniak beregandik kentzen dituela errusiarrak, nolazpait esateko. Neronek ere askotan gogorazi izan dudanez, Sobietar garaiko errusiar etorkinak, oro har, ez dute estoniar naziotasuna lortu. Eta «etorkin» gisa daude oraindik, «kanpotar» gisa. Eta, bestek beste, botorik emateko eskubiderik gabe.

Ez dira gutxi, bestalde: 600.000 gutxi gora behera, Henleyk dioenez.

Hona hemen errusiar etorkinaren «erretatu-robot», beti ere Henleyren ustez; artikuluan Pavel bataiatuarena.

Pavel «errusiarrak» Estoniako Sobietar Errepublikan jaio zen 1952an. Beronen bi gurasoak errusiarrak ziren. Smolensk-ekoak. Eta errusiar eskolan ikasi zuen. 44 urteko «rusofoño» horietakoa da, beraz: Estonian jaioa, bai, baina errusiar jatorrikoa.

Bere ikasaldi guztian barrena hiru astez baizik ez zuen estoniera ikasi. Errusiar egunkariak irakurri ditu, errusiar telebista besterik ez du begiratu; eta Tallinn-go bere lantegian, errusiera besterik ez du erabili.

Tallinen, bestalde, etorkinen olata dela-ta, gehi aginte errusieradunaren eraginez, berrogeita hamar urte horretan errusiera bihurtu zen mintzabide nagusi. Eta, hitz batez, Smolensken segi balu bezalaxe, errusiera hitsez bizi izan da bere 44 urte horietan barrena.

Ezkondu ere, errusiar emakume batekin ezkondu zen.

1989an Estoniak bere askatasuna aldarrikatu zuen. Eta orduantxe hasi zen galbarioa Pavelentzat.

Lana galdu, eta beste lanpostu bat lortzeko, estonieraz jakin behar. Hots, Pavel horrek ez daki. 44 urte pasa ditu Estonian, baina... «Estoniera oso hizkuntza zaila» dela esaten du.

Estoniar hiritagooa lortzeko ere, arazo bera: estonieraz jakitea beharrezko oinarri (etsamin baten bidez).

**Estoniarrek eutsi egin diote beren erabakiari: bertako hizkuntza menderatzen ez duenak, ez dauka estoniar naziotasuna lortzerik**

Eta Estonian sortu diren bi alderdi errusizaleek «diskriminazioa» salatzen dute. Errusiar etorkinek 30, 40, 50, 60 urte Estonian pasa dituztela, eta bertako hizkeraz gor-mutu izateaz, fitsik ez. Diskriminatzaileak ez omen dira berak, etorkinak, diktadura arrotz baten itzalean hara joandakoak; bertakoak, diktadura jasan zutenak, inposaketa jasan zutenak baizik.

Arago: tristuraz, urrutimenez, «nostalgiaz» oroitzen omen dira urte haiez («*Dissillusioned and often nostalgic for the certainties of Soviet days*», hitzez hitz kopiatzekotan).

Moskun, jakina, berehalda ulertzen dute beren herrikide «diskriminatu»-patu hitza. Eta Errusiako Atzerriko ministroa den Yevgeny Primakov-ek, adibidez, argi eta garbi eskatu du erabaki ekonomikogorak hartzea; bai Estonian eta bai Letonianen aurka.


Mendebaldeko kantzillergoek, bestalde, beti ere giza-eskubideen errespetuaz oso kezkatuak, beren ezinegona erakutsi dute aste hauetan. Eta USAko enbasaoreak «etorkin horiek integrazteko urrats berriak emateko» eskatu du Stockholm-en.

Estoniarrek, halere, tamainaz txetxerriaren kide (milioi bat biztanle), eutsi egin diote beren erabakiari: bertako hizkuntza menderatzen ez duenak, ez dauka estoniar naziotasuna lortzerik. Eta hautua garbi utzi: kultur integrazioa erakutsi, ala atzerritar gisa bizi Estonian.

«Hurrengo belaunean» problemarik ez dela egongo, eta kitto. Eta ez dute amore eman.

Irakurleak soma ditzakeen iruzkinak egingo nituzke orain. Aisa. Eta mamitsu.

Baina berriro ere: «hitza hitz». Eta ez ditut egingo.



HEMEROTEKA

**Argia Iparraldeak behar duen instituzioa**

Xan Koskarat

Iparraldean 1996a, egitura berezi ala instituzio berri baten eskaeraren urtea izan dela dirudi. Ihundaino gertatu ez zena, 93 auzapezek (%60ek) Euskal Departamendu baten alde bozkatu zuten. Ipar Euskal Herriak garapen bat lortu nahi badu beharrezkoa dela egitura eta ezagutza berezi baten lortzea, Iparraldearen gerotari begira, euskal nortasuna, lurraldetasuna eta garapena osoki uzartuak direla. azpimarratzen zuten... Ez dago oraino aintzen baitan herri kontzientziarik. Aintz hautetsik eska-

kizun hori frantses estatuaren egituraketan kokatzen eta baieztatzen baitute oraindik.

Abertzaleen Batasunak bere aldetik gogoetatzek eman ditu eta erabaki du «Euskal Instituzioa orain» eskakizunaren inguruan kanpaina baten eramatea. (...) Lehenik, Instituzio mailan, abertzaleek iniatziba berriz hartzen dute (...) hautetsi handi horien ele zuri eta falsukeriak baztertuak dira eta egiazko instituzio baten beharrari. Iparraldeari ezagutza politiko eta administratiboa ekartzen diotari erantzun beharko diote. Bigarrenez, (...) Hemendik goiti euskararen, ikastolen, planifikazio ekonomikoko berri edo amnistiaaren aldeko borrokoen ondoan, euskal instituzioaren aldeko borroka egunerokoa bilakatu behar luke. Nekeak dira gaur egun oraindik Euskal Instituzio hori ez delako definitua. Denek beren burua

barne senditzen ahal dute baina nehorik oraindik ez dezake erran nola egituratuko den, zer ahalmen, podere eta zer proiektorentzat obratuta izanen den.

Abertzaleen Batasunak eskatzen duena, frantses Estatuako antolaketa berri bat bakarrik, departamendu berri xume bat, herrialdearen eskumenak daukan departamendu bat, ala autonomia bat ote da? Hor daude lehen bai lehen erantzun beharko diren funtsezko galdera batzuek.

Abertzale bezala ez dezakegu bakarrik onart departamenduak dakarren antolakuntza administratibo berri xoilak. Antolaketa horrek ez baitu aldekata politikorik, herri ezagutzaren ekartzen. Departamenduak dakarrena da administrazio mailako errestasun batzuek, zerbitzu zentralak hurbilduz, lanpostu andana bat sortuz, eremu mugatu batzuetan diru inbertsioak egiteko posibilitatea emanez.

## La Violencia

Alizia STÜRTZE / Historiadora

NIRE TXANDA

Lo subjetivo (y manipulador y por tanto peligrosamente antidemocrático) de la información estadística y de los estudios sociológicos basados en ella no son los datos empíricos, sino las preguntas hechas para extraer los mismos y su interpretación posterior.



Con respecto a la violencia callejera, por ejemplo, se podría estudiar, no ya cómo se ha hecho, si hay ahora más o menos violencia que antes, sino comparar la situación anterior y posterior a la introducción de la Ertzaintza. Esta segunda comparación quizá no favoreciera a los rambos de Aitutua, excesivamente brutales y escorados, y cuyo excesivo protagonismo es quizá el culpable directo de ese aumento del nivel de violencia que dicen querer combatir.

Otro ejemplo de informe estadístico reciente, y desgraciadamente también subjetivo en su aparente imparcialidad, es éste publicado sobre la violencia en TV: 427 asesinatos y homicidios, 42 secuestros, 67 hurtos, 654 luchas... A quien vea con cierto ojo crítico la multitud de series con que nos obsedian, plagadas de policías protopentes, le extrañará que estos datos no recojan la violencia del aparato del Estado, sino sólo la individual y social, con lo que de aquí se desprende: la sociedad es generadora de violencia y la represión es vital y necesaria para reconducirla. Además, esta obsesión con lo perverso de la violencia en la tele como generadora de adolescentes violentos que luego se encapuchan «por imitación», oculta que los crímenes o los robos o las algaradas son manifestaciones violentas, no son *la Violencia*. La Violencia con mayúsculas la constituyen esos valores del más descarnado sistema capitalista, latentes en infinidad de programas y que nuestros adolescentes van interiorizando sin darse cuenta, visto el éxito de ciertas series en que el modelo a copiar es el del chico-chica más popular de la clase, o el del guapo-guapa aspirante a yuppie justificado en su lucha ascensional a pisar al que sea, o el del policía come-pizzas, fracasado en su vida familiar y que, por desgracia, a menudo ve malogrado su excelente trabajo de *caza del malísimo*, al enfrentarse a un poder judicial excesivamente legalista.

Esta interiorización de los más agresivos valores del wispismo USA —el individualismo feroz, la insolidaridad y la importancia del «triunfo» como único objetivo vital— es bastante más peligrosa que la visión de un crimen o un robo contra la propiedad. Por ello no se entiende que nuestros geniales sociólogos no analicen la incidencia de la TV en la «norteamericanización» de nuestros jóvenes, es decir, en su aceptación de valores generadores de desigualdad, injusticia y, por lo tanto, violencia.

Euskal departamenduak kuadro berri bat ekar liezaioke Iparraldeari, hiru probintziek osa balezaketek ezagutza administratibo ahul bat liezaioke, ez baita hori batere segur, Iparraldeari Landesetako hegoaldea juntatu nahi dutelako. Bere alde baikorra hurbiltasun hori du, borrokaaren eramateko maneran aldekata batzuk badirelako. Politika aldetik, interesez biluzirik den errestasun bat dela iruditzen zait. Berez ez da helburu bat izaiten ahal, baizik eta urrats minimo bat podere politikoa errestasun egitura aldekata hortan.

Egiazko Autonomia estatuto bat, deszentralizatzeko hortarik arunt desberdina liteke, sobarotasunari buruz urrats bat baita, eta gure nortasun nazionala beiratzten eta osatzen dute irabazi herrikoietan oinarritzen baita. Administrazio mailako antolaketa batekin batera, politika mailako aldekata bat eta gure nortasun be-

reziaren onespina dakar. Autonomia ez da helburu bat bainan burujabetasunari buruz Iparraldeak lortu beharko duen etapa premiatsua bat. Autonomia egiturak eskumen eta ahalbide zabalak litzuke. Eraikitzen elkarrearen proiektioan agertzen da ere zoin izango diren lege eta agente ahalak, eskumen bereziak eta abar.

Dena dela, instituzio eskakizuna gaur Iparraldean ezinbesteko bilakaturia da. Orain denari dago kierna da gogoetaztea eta atzeretzea, kontribuzio gogienetaz baliatuz, instituzio horren gorputza, beti gogoan ukanez helburua dela Euskal Herri bat obratzea. Hortarako errealitateak eta bakotzaren urratsak errespetatu. 1997ko urteko borroka eremuetan lehentariak bat instituzioarena izanen dela iruditzen zait. Segur aski heldu den Iparraldeko Abherri Egunko lema nagusia ere bai.